

1224 – Bideoak ikasprozesuan: aukerak eta baliabideak?

Amaia Arroyo Sagasta - HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea

Ikastaro honen helburua bideoak ikasleen artean ikaskuntza sustatzeko izan dezakeen ahalmenaz jabetzea izango da.

Horretarako, bideoak ikaskuntza-testuinguruetan izan dezakeen erabileraz arituko gara. Bideoen erabilera didaktikoari buruz hausnartuko dugu, baita horren inguruko hainbat gako landu ere. Horretaz gain, ikaskuntzarako hainbat bideo-mota nola egin daitezkeen eta horiek ikaskuntzan zer funtzio izan dezaketen landuko da.

Ikastaroaren amaieran, parte-hartzaile bakoitzak bideoa erabiltzeko proposamen bat diseinatuko du, baita bideo-eredu bat sortu ere.

Helburu orokorra

Bideoaren erabilera didaktikoa sustatzea helduen euskalduntzean eskolak ematen ari diren irakasleen artean.

Helburu operatiboak

- Bideoek izan dezaketen erabilera didaktikoari buruz hausnartzea.
- Ikaskuntzarako hainbat bideo-mota ezagutzea.
- Bideoak egiteko oinarrizko trebetasunak garatzea, ikaskuntzan zer funtzio izan dezaketen kontuan hartuta.
- Bideoa ikaskuntza sustatzeko tresna gisa erabiltzeko proposamen bat diseinatzea.

Edukiak

1. **Uztailaren 11ko saio sinkronoa (1 h):** Bideoen erabilera didaktikoari buruzko saioa.
Online lanketa (6 h): Kasu-azterketa eta bideo-motak ezagutzeko lanketa.
2. **Uztailaren 14ko saio sinkronoa (1 h):** Gidoiaren lanketari eta bideoaren erabilera didaktikoaren proposamen didaktikoa egiteko gidalerroei buruzko saioa.
Online lanketa (6 h): Bideoaren erabilera didaktikoa aintzat hartzen duen proposamen didaktikoaren diseinua.
3. **Uztailaren 17ko saio sinkronoa (1,5 h):** Proposamen didaktikoen panela eta koebaluazioa.
Online lanketa (4,5 h): Bideo-ereduaren sorkuntza eta autoebaluazioa.

Metodologia

Ikaslea izango da ikasprozesuaren protagonista. Irakasleak baliabideak eskainiko dizkio (saio sinkronoetan eta plataforman) eta gidari-lanak egingo ditu, baina parte-hartzaileen arteko elkarlana egongo da ikasprozesuaren bihotzean. Era berean, izaera praktikoa izango du ikastaroak eta, beraz, parte-hartzaile bakoitzak bere testuinguruari egokitutako proposamen bat diseinatuko du, ikastaroan landutako edukiak kontuan hartuz. Horri esker, ikastaroan ikasitakoaren transferentzia egitea bultzatuko da, izaera praktikoa azpimarratuz.

Ebaluazioa

Ebaluazio jarrai eta hezitzailea bultzatu nahi da ikastaroan. Horregatik, 3 momentu hartuko dira kontuan:

Hasierako ebaluazioa: aurrezagutzak zeintzuk diren ikusteko eta gaiarekiko motibazioa pizteko, galdetegi bat erabiliko da. 1. saio sinkronoan ere horien inguruko jasoketa egingo da.

Ebaluazio jarraia: 2. saio sinkronoa ikasleen prozesuaren berri izateko espazio gisa baliatuko da.

Amaierako ebaluazioa: 3. saio sinkronoan parte-hartzaileen proposamenen koebaluazioa egingo da. Horrez gain, online autoebaluazioa ere egingo da, hasierako ebaluazioarekin koherentzia eta prozesuaren ikuspegi globala bermatuz.

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da:

- proposatutako jarduerak egin eta gainditzea
- asistentzia % 75ekoa baino handiagoa izatea

Bibliografia

Arroyo Sagasta, A. (2017). "Irakaskuntzarako bideoak: zergatiak, irizpideak eta gidalerroak". E-Hizpide, 90.
https://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod_habecms/doc_attachment_eu/2047/H90_Arroyo-Iraskaskuntzarako%20bideoak-1.pdf

Marta-Lazo, C. eta Gabelas, J.A. (2016). *Comunicación digital. Un modelo basada en el factor R-relacional*. Editorial UOC.

Sangrà, A. (coord.) (2020). *Online-irakaskuntza hobetzeko dekalogo. Testuinguru presentzial ez-jarraituetan hezteko proposamenak*. UEU eta Editorial UOC.